

SANTI ONAINDIA, EUSKAL LETREI EMANA

Euskal letretako langile aspergaitza, olerkaria, Grezia eta Erromako klasikoen itzultzailea, bertsolaritzaz eta batez ere euskal literaturaz hainbat liburu idatzi dituena, era askotako gaiak jasoz idazlan eta liburutan ia bukaezineko zerrenda luzea duena. Guztien gaineratik *MILA EUSKAL-OLERKI EDER* liburuaren egiletzat gogoratuko du geroak Santi Onaindia.

Bizitzako zertzeladak

Santi Onaindiaren bizitza eta lanaz asko idatzi izan da han eta hemen. Nik neuk ere idatzi ditut, bai aldizkari honetan eta bai elkarlanean burututako liburu batean. Gogo-gogoz egindako lanak izan dira eta, aldaketa txikiak gorabehera, haietaz baliatu naiz *Karmel* aldizkarirako idazlan hau burutzerako.

Amoroto eta Larrea aldera begira nago. Bata sehaska, bestea bizileku. Bizkaiko txoko polit horiek osatu dute batez ere Santi Onaindiaren bizitzako ingururik maiteena.

Luma hartu eta OROI-TXINPARTAK liburuan barneratu naiz. Baina amorotoar honen bizitzak oihan joria dirudi: altxor bete-betea, aberatsa, oparoa eta atsegina aurkitu dut. Aukera egin beharra dagokit, zehar-meharka eta hara-honaka bidean gal ez nadin.

Santi Onaindiak goi-goian du tokia euskal idazleen artean. Euskal kulturaren dugun izarrik argitsuenetariko bat dugu bera. Ez, beharbada, ikertzaile sakon eta zehatz horietakoa; bai, ordea, idazle ugaria, gozoa eta saiatua. Aipatutako liburu horretan, eskuetatik utzi gabe, hasieratik azkeneraino irakurtzekoak diren bere oroitzapenak eskaintzen dizkigu. Nik, ordea, hartaz barnean dudan irudia neure erara eho eta gogoko zaidan haren alde atsegin eta irribarretsua ezagutzera eraman nahi nuke irakurlea.

Amorotoko Atxuriarte baserria

Miloitik Oletara doan bide zabaletik, Armiña kobazulora orduko, begira ezazu ekialderantz eta hantxe, aurrez aurre, bi haitz-mokor zuriren erdian ikus daiteke Atxuriarte baserria, bi haitz zuriren artean dagoelako horrela deitua. Hantxe jaio zen Santi Onaindia 1909.eko martxoaren 24ean. "*Bidetik urrintxu ez balego, eguzkiak txeraz ikertzen dauan leku sotil, osasuntsua*" dio berak. Amorotoko elizalde edo plazatik Atxuriartera joateko hiru ordulaurdeneko bidea edo zen. Arbel- -trosko ezberdinez dago bide-zati bat, gero aldats behera, zubi kaskar bat igaro eta aldats gora azkenengo zatia. Bost neba-arrebaren habia berri gertatu zen baserri hori. Migel Onaindia Barrutia eta Jazinta Baseta Albizuri senar-emazteek bi alaba eta hiru seme izan zituzten. Ez Migel eta ez Jazinta ez ziren hangoak, ezkontzaz hara etorriak baizik. Aita Markinakoa zen eta ama Axpe-Arrazolakoa.

Baserri-giroko hainbat gauzak kilikatuko zioten bihotza mutiko honi, 1975.ean NIRE BASERRIA izeneko arnasa luzeko poema idatzi baitzuen. Neguak, udaberriak, udak, amonaren heriotzak, erleek, behiek, baserriko lanek... zizel-kolpeka bezala, haren arima sentimendu gozo eta saminez markaturik utziko zuten.

Aitazulo

A. Santik adeitasunez eta maitasunez aipatzen ditu bere gurasoak. Baina, oharkabeen edo beren-beregi, aita jarri ohi du goi-goian. Aitaren itzala, harenganako mirespena txitean-pitean itzuri ohi zaio lumatik, haurtzaroko oroitzapenak barnean eho ahala paperera goxoki isurtzen dituenen. Haurtzaroan baino gehiago mutikotan, hura du eredu, hura gidari. Ama etxe barruan isil-isilik, txiri-txiri lan eta lan aritzen den emakume on eta maratza izango zen. Halaxe zelakoan, oraingo ideia berriak erretzeko zirelarik, senararentzat eta seme-alabentzat habia gozo bihurtzeko buru-belarri ari zen etxeokandrea maitagarria. Etxeko zeregin guztiak amak egingo zituen, noizbehinka norbaitek, alabarik zaharrenak edo, lagunduko ziolarik. Eta soroan, premia larrienak edo lanik gogorrenak zirenean, ama han izango zen familiaren alde ekinahalean...

Dena dela, Santi aitazulo dugu. Hiru mutikoetarik zaharrena izanik, aitek berekin darama batera eta bestera. "On-onak ziran gure gurasoak, kristiñau zintzoak" diosku berak. Kristau-heziera ona eman zietela ere argi eta garbi dio. Igande gehienetan, bazkalondoan, amak harrikoa egiteari zekion bitartean, aitek etxe aurreko madariondo baten itzalpera seme-alabak eraman eta hantxe irakurri ohi zien Frantzisko Iñazio Lardizabalen TESTAMENTU ZAR ETA BERRIKO KONDAIRA liburutik kapitulu bat edo bi, gero azalpen gozoak eginez. "Kontu aundiz zaindu ta gorde eban liburu au nire aitek, eta azkenez il-zorian aurkitzen zala bertatik zerbait irakurteko eskatzen eustan".

Migel feriazalea zen eta hilero, azken larunbatetan, Markinara joaten zen, zer edo zeren salerosketa aiko-maiko eta atxakiatzat harturik. Santi mutikoa izan ohi zuen, gehienetan, lagun. Akuilua eskuetan, gizonkeria handitxoa izango zela eta, hurritz-makilatxo bat emango zion eskura, bide-muturren batean txakurren bat agertuko ere badaezpada... Atxuriartera itzuli beharrean, Markinan, Mibe auzoan, aitaren jaiotetxean gelditzen ziren gaua egiten. Behin, eibartar bati behia saldu eta tapa-tapa, Barinaga, Aginaga eta Azurtzan zehar Eibarrera joan zireneko pasadizoa kontatzen digu bizi-bizi. Han, taberna zuen izebarenera joan ziren, bertan bazkaldu, langile-hiri hartan jirabira batzuk egin eta Urkorantza abiatzerakoan, aitek tren-geltokia erakutsi zion mutikoari eta, egun argiz Atxuriartera heltzeko, tapa-tapa jo zuten aita-semeek aldapan gora. Jakina! gogozko tokian aldaparik ez. Ekintza itzel eta gogoangarritzat geratuko zaio oroimenean betiko itsatsirik.

Bere liburuan zehar aitari behin eta berriro agertzen dio bere eskerrona. Aipatzekoa da Dueso-ko gartzelan zela hartaz dioena. Handik gutuna egin zion aitari Markinara, non eta nola zegoen esanez. Bigarren hilabeterako han zen aita, semea ikustera joanda. Gero, hila birik behin joan ohi zitzaion. Honela dio berak: "Ez diñot au aita goratzearren: egiazko aita zan, ni biotz-biotzez maite ninduana, orrelaxe agertu bait zan aldioro".

Aita ez zuen eskola handikoa, baina esperientziak asko ikasia bai. Hala ere Migelek, berak ez zuena, seme-alabek izan zezatela nahi zuen. Berak izan ez zuen eskola opa zien haiei. Santi zuen batez ere bere begikoa, legez honi baitzegokion Atxuriarterako oinordetza. Baserritar eskolatua eta jantzia nahi zuen, edonorakoa; eta bere gogo hori nola egia bihurtuko, ameslari ari zen.

Goazen ikastera

Goiz ilun bat zen. Ama eta anai-arrebak musu beroz agurtu zati batetarako eta Lekeitiorantz abiatu ziren aita eta biak. Meza berria Amoroton eman arte ez zen itzuliko Atxuriartera. Hamahiru urtez, etxetik kanpo.

Goizaldean Atxuriarteri eta han uzten zituen ama eta etxekoei egindako agurra benetan hunkigarri gertatu zitzaiola ez dago esan beharrik. Abenturaren antz pitin bat bazuen. Aurrean agertzen zitzaion etorkizun itxaropentsu eta liluragarria alde batetik eta saminezko ziztadaz arima negarrez uzten zion haustura, banatze edo urradura bestetik. Maiteen zuen zati bat atzean utzi eta, agian goizegi, haurtzaroari agur egiten ote zion susmoa nabari zaio Santi gaztetxoari. Ibilian-ibilian oinazpian elurra gesaltzen den antzera, aurrera egin beharrenean egin beharrez, ordura arteko bizitza suntsituz, lurmenduz zihoakion... Dotore eta hunkipenez azaltzen digu berak une hau:

"Abenduaren laua, Barbara deunaren eguna, egun luze euritsua, billosik zugatzak, basaz bideak, bidez niñoiala, gaintxotik, atzera begira ta eskua luzatuz, agur egin neutson jaiotexeari, agur betiko. Biotza dardar, begiak malkoz, eta aurrera aitaren ondoan; erropa eta jantzi meez ornidutako kutxa txikia eroian aita bizkar-gaiñ, neure ikasle-arreoa. Oleta atzera itxi ta Arrupain-era eldukeran, uriko argi--lerroak ñirñir. (...) Argitzen eguna. Jentez beterik kotxea. Ibilten asi ta an-or geldituz Gernika-ko tren-geltokian orra, eta andik Zornotza-ra asko luzatu bage. Beste pizkat luzatuz Larrean gengoan, nik arrezkero berrogei bat urte daroadazan atsedentoki ezin obean".

Bertakoturik

Larreko Karmeldarren ikastetxe zaharraz ezin hobeki hitz egiten dute han ikasiak diren guztiek. Antzinako jauregi eder bat zen, izatez. Barru eta kanpo etxe erosoak. Hango giroa, atsegina, gozoa. Oroitzapenak borbor azaleratzen dituzte bihotzetik hara, hunkipenez, urte haietan han izan zirenek. Goratzarre horietan, Santi Onaindia bera ez dugu apalena. Saminez, tristuraz gogoratzen du haren suntsipena:

"Ikastetxe onen arrastorik be ez da agiri, alboko orma gañean jauregi arek aurrekaldean eukan armarría, ortua ta burdin-sare luze ederto landua izan ezik. Erdi kiskaldua itxia suak gerratean, gero jabeak eurak -prailleak- jauregiaren lau ormak eta baratz sotilleko izai, zipres ta ainbat zugatz-mota aizkoraz ebagirik, ortu biurtu eben lur-sail zabala. Nik, gure ikastetxea alan ikusi nai ezta, lau urtez ez neban an oiñik ipiñi".

Aurreraxeago ere sentimendu eta ideia berbera agertzen du:

"Larrea niretzat beti izan da alai atsegina, naiz-ta ez gerra aurretik zan aiñakoa; orduan kendu eutsoen zerbait bere--bera ebana".

Ikastetxe horren atarian dei egin zuten abenduaren lauan, eguerdi aldean, aita-emeek. Urteetan Larrean berekin biziko zen eta oraindik han dagoen Aita Luki orduantxe ikusi zuen

lehenengoz; baita Duralde eta Barrenetxea markinarrak ere. Hauek, Santi baino zahartxoagoak, pixka bat lehenago hara joanak. Lagun min egin zen, markinarrekin batez ere, bere aitaren herritarrak zirelako edo. Joan zen aita eta Santi gaztetxea han geratu zen. Etxeminak erruki gabe sastatzen zion bihotza. Egunez ez, baina gauzez ia hilabetez eman zion negarrari berea; hala diosku berak.

Ikasketetan hasi-masietan zela, irakasleen artean, Anaia Gregorio, Agurain aldeko arabar argia aipatzen digu begirune eta maitasun handiz. Aurpegi ilunik egundo jarri gabe, egonarriz gaztetxoei letrak irakasten saiatzen zena. Hark irakatsiari esker, urterik galdu gabe egin zituela lehen ikasketak, dio Aita Santik. Urteetan irakatsi zuen Larrean. Azkenez, Txile-n karmeldarrek zuten Txutxunko-ko ikastetxean maisu zela hil zen. "Orduko ikasleok ez dogu, ez, aren gomutarik galdu; nik beñik-bein ez daukadaz aaztu-lezaratzeko ak emondako irakaskintza sendo sustraizkoak, bizi guztirako balio izan daustenak". Beste irakasle batzuk ere maiteki gogoratzen ditu, ikastetxeko zuzendari izan zen Aita Roman batez ere, geroago frankotarrek Larreako baratzako horma ondoan fusilatu zutena. Garai honetakoan artean, besteak beste, hauek agertzen ditu bere kontaketa-harian: Hermenegildo, Migel, Markos, Daniel, Plazido, Angelo, Angel... Geroago, Markinan, Aita Urbano Manzisidor izan zuen maisu. Euskara irakasten aparta izan behar zuen honek. Gramatikari dagozkion ohizko arloak sakonduz batera, euskalkiak ezagutarazten zizkien, baina batez ere idaztera bultzatzen zituen gazteak. Donostiako EUSKAL ESNALIA aldizkarian datoz horien lanak, 1925-28 bitartean.

Bere herrian, Amoroton, hala-holako ikaslea izan zela, dio. Aukerarik ezak eragin ohi du, sarri, izpiritua erdi lotan, aurrerantz egiteko gogo barik egotea. Hala uste du eta hala airtortzen digu berak: "Neure leen-maisuari eskerrak, ikas-griñaz sutua geratu nintzan betiko".

Ikasketaren ordutegi eta zurrunbiloan sarturik, ohartu gabe heldu zitzaizkien Gabonak, Urteberriak, Erregenak. Gaztetxoan hasierako zotina, tristura eta abar uxatu ziren betiko. Gure Santi ere, dirudienez, ez zen gehiegi gogoratzen etxeko giroaz, ezta urtearen hasiera horretan, etxerik etxe "Urtebarri-barri" abestuz ibiltzen ziren lagun arteko ohitura politaz ere. Gogoratu bai, baina ez saminez, tristuraz, herrimenez. "Laster egin nintzan bertoko. Bertoko giro atsegin epela, mai betea, egunero egindako ibillaldiak..."

Aita noizean behin joan ohi zitzaion. Halako batean, hitzetik hortzera egotzi zion: "etxera etorri nahi dozu, seme". Santik ezetz, eta kito. Harrezkero ez zion horrelarik aipatu. Mutila bertakoturik eta biziera berrian tinko zegoela ohartu zen aita; Karmeldar izateko barneko hazitxo hori edo, erne zitzaiola. "Goi-deia" dio berak. Eta joera edo sentimendu horretaz gogoetaka ari denean, honako hau esaten du: "Nor dabil emen? Ixilleko arnas-emoilleren bat, nik uste".

Nobiziatua

Urteen gorpila abiada bizian zihoan. Lau urte eta erdiko lehen ikasketak bukatu ondoren, ikastetxearen aurrez aurre zuten nobiziatuan sartu behar zuten. Hango bizimodua zela eta, zaharragoen ahotik, direnak eta ez direnak entzunak izango ziren, behar bada: batean gauerdian jaiki beharra, bestean otoitzaldi luze eta penitentziak, luzaro isilik egon beharra... "Guk be egingo genduan besteak egiña, gogorra zala iñoskuen bizitzeari arpegi emonaz".

Eguneroko bizimoduaren azalpena ematen digu, gero, bizpahiru zirrimarra ongi taxutuetan:

"Niri leenengo bizi-oiñean ipiñi eusten gelea. Lau metro ta erdi luze, iru ta zerbait geitxoago zabal. Bazter baten oia ta maitxo bat bestean, liburu batzukaz; leio ez-auditik barazkiz eta fruta-zugatzez beteriko ortua ikusi neike, zabal eta eder. Gure ibilia, gelatik korura, korutik jantokira ta emendik jolaslekura ta ikas-saloiara..."

"Goizean jagi, koruko errezuak, otoitza, mezea, gosaldu, ikasi, jolastu, lokuluska, otoitzaldia ta abar. Zer ikasi? Geure legeak, otoitz-jarduna, au da, karmeldar bizitzan zelan bizi etenbako otoitz-arloan. Labur: azi ta ezi tantaka-tantaka lez, leize-zuloan goitiko tangadak dagiana, Jainko-grazi ta doez geure giza izateak bete-bete egin arte".

Denbora aurrera eta gu ere bai haren harian. Heldu zitzaien gazte haiei ere profesia-eguna. Elizkizun samurra, hunkipenezkoa.

Ondoren etxeokak eta hainbat urtez ikusi gabe zituen senide eta adiskideak agurtu eta anaiarteko bazkaria. Hura barbaroa! Bazkalondoan, berriro ere zorionak, eskumuinak etxeok eta senitartekoei ematea! Agur eta kito... Amets bat itzali da.

Geroko urteak eta ametsak

Hurrengo urtea Markinan. Euskal idazle gisa Larrean hasitako ildotik hegazkadatxo laburrak baina gogara eginez zihoan. Zorionsu zen, baina ustekabeen eta onen-onenean ezbeharra: Ikastetxe zaharreko lehen ikasketak burutu eta nobiziatuan sartu orduko, azken ibilalditxo egin zuten hango ikasleek euren irakasleekin. Haien artean zen Bixente Onaindia ere, Aita Santiren anaia, hau baino bi urte gazteagoa. Urkiolara joan ziren eta handik Anboto puntara. Han irrist eginik, amildegitik behera eroririk galdu zuen bizia. Hura samina!

Ikasketa nagusiei Gasteizen emango zieten hasiera. Hemen filosofiako hiru urteak eta Begoñako Karmelon teologiako lau urteak, apaiz-karrera bukatu arte. Gazteizen aldizkaritxo bat ateratzen zuten ikasleek, euskaraz, gaztelaniaz, latinez... *Renacer* zuen izena.

Begoñako Karmelon, teologiako ikasle zela, asko idatzi zuen Santi Onaindiak, KARMENGO ARGIA aldizkarian batez ere.

Gazte ameslaria genuen Santi. Baina ez txakur-ametsetan denbora alferrik ematen dutenetariko, ekinaren ekinez, etsi gabe, ametsak egia bihurtzen zekiena baizik. "Zeru bat nai gendun laino ilunik bakoa. Egun argi alaia; oso-osorik geurea. Koruan, jolasean, iratzarrik eta lo, pentsamentu bat ebilkigun run-run ez-titan: Meza barria".

Bazuen beste ametsik ere. Mihi gaiztoek edo diotenez, Santik etorkizunean ospetsu izateko gogoa agertu omen zuen behin ahots ozenez. Nik irribarrez hori aipatu diodan guztian, ukatu egin dit egia denik. Ikaskide izan zuen lekuko batek, ordea, baietz eta baietz esan ohi du. Zein tokitan, nola esan zuen eta guzti... Markinan, eskailera buruan, oilarra baino tenteago jarri eta esan omen zuen berak ospetsua izan behar zuela! Eta nork ukatu hori lortu duenik...? Bai, Aita Santik mihia eta luma ederki erabiltzen ditu, baina batez ere lan eginez eta egintzaz daki kukurruku egiten.

Hainbat omenaldi jaso ditu azken urteotan. Ongi mereziak!
Dena dela, ez dugu horrelakoetan kikiltzen denetarikoa, bestera baizik. Biztu eta poztu egin ohi zen omenaldietan.

Gerratea

Bernard Etxepare-ren olerki batez ematen dio hasiera, bere liburuan, gerrateko kontakizunei:

*Jangoikua, orai dizit egiteko handia:
hiri honetan eriotzez hiltzen duzu jendia.
Gathibutan hil enadin, gizon ogengabia,
osorik, othoi, ialgiteko zuk idazu bidia,
izterbegiak eztagidan gibeletik irria:
"ogenduru zuian eta han galdu dik bizia".*
(B. Etxepare, XIII, 92-98)

1936. urteko uztailean Eibarren zen Santi Onaindia eliz hitzaldiak egiten. Calvo Sotelo tiroz hila izan zen eta gerra--sua berehala piztuko zen zurrumurrak eta hotsak bala-bala zabaltzen ziren, bai jende xehearen artean, bai komunikabideetan. Afrika iparraldean hasiko zen altxamendua, Franko jenerala buru zela.

1936.eko Gabon aurretxoan dei egin zion Jose Maria Korta Uribarren jaunak, Euzko Gudarostearen kapilautzaren arduradunak. Bilboko Carlton hotelean, elkarrizketa txiki baten ondoren, berehala onartu zuen hark gudarien kaperau izateko. "Kirikiño" batailoian lerrotu zuten eta Durangon egingo zen bilera batean esan zioten zer egin. Bilera bukatu ondoren, Lauaxetari eta han zeuden beste ezagun batzuei bostekoa luzaturik, Larreara itzuli zen.

Aste hartan bertan, Durangoko Josulagunenean zen, "Kirikiño" taldeak hantxe ezarri baitzuen bere egoitza. Han hornitu zituzten gudariak gudurako behar zutenaz, baita kaperauak ere euren egitekoa betetzeko beharrezkoaz. Kanpanzartik Intxortara bitartean, Angiozar gaintxoan egokiturik zegoen Kirikiño taldea. Hor zehar ibiliko zen Santi Onaindia ere. Hainbat gorabehera, pasadizo eta sentimendu kontaktzen dizkigu. Beldurrik ez zuela izan, dio berak; bala artean ibiltzen ere ohitu egiten dela bat. Hala ere zenbait pertsona maiteren heriotza hunkipenez azaltzen digu; esaterako, Jose Maria Korta kaperauen buruarena eta Kandido Saseta gudariarena. Biek erori ziren Asturias aldeko mendietan bala-kolpez eraitsiak. Sasetaren heriotzak batez ere zirrara bizia eragin ziola diosku. Horrela, bihotzari hitz egiten utzirik, sentipenez gainezka, olerki bat eskaini zion, gero EUZKADIn argitaratu zena. Hona hemen:

"Oi, jausi zara, jausi, Saseta kutuna!
Gaurtik illen arteko egiña zaitugu.
Aizea baizen arin da an-or edatu
zure eriotz miñaren il-izpar ertuna.

Leiatsu maite zendun euzko Aberria,
ta Aberririk urrin, oi!, jausi zara.
Betikoz jausi zara, leñargi antzera;
biotzak ez nai siñets, baiña da egia.

Izkilots atergea, lurrak dart oinpean,
sua, kea, garra, gudean gartsuki;
giza gurenak letxe ereiñoz bekoki
jausi zara azkenez etsaien aurrean.

Erbeste-lurraldetan emon izan dozu,
euskal lurra begira, azken arnasia;
baiña azkatasunaren lora apain-guria
ementxe jaioko da eder, naro, triru.

Biotzean min dogu, Saseta maitea,
biotzean min dogu, begian negarra;
samin-uluz daukagu laztan dozun lurra,
errai-dardaraz, izu, euzkotar mendia.

Uso zuri-otzana basoan egazka,
biotzak samin-eunaz dituzu estali.
Baiña zu ego zuriz, arranoa iduri,
argi-itzal eziñera aldatua zara.

Atsedean, bai, atsedean betiko argitan,
barne-muiña eresiz, goi-argiz adiña.
Beukozu azken бага zeru-atsegiña.
Laster gaituzu gu be, or, goi-alde ortan".

Guduaren hasieran etsaiak hil zuten Jose Ariztimuño Olaso "Aitzol" ere mirespenez aipatzen du. Lehen garaietan, misio-ekintzei emanik bizi izan zen Gasteizen. Gerorago, Donostiara aldatu, euskal kulturaren gaietan murgildu zen buru eta bihotz. Langile porrokatua zen Aitzol, suharra. Behin gauza bati ekinez gero, aurrean zituen guztiak hartara bultzatzen zituen haize bortitz eta kiskalgarria. Guztiak kausa haren alde gogoberotuz, gori-gori eta adoretz beterik jartzen zituen. Hainbat kultur arazotan esku hartu zuen: bertsolari, olerkari, antzerki-saio, sariketa eta abarretan. Berak sortu zuen YAKINTZA aldizkaria, hainbeste jakintsu, idazle eta olerkariri euskaraz idaztera eraginez.

Gudua hastean, altxamenduko jendearen asmo doilorrak sumatuz, Aitzol beste askorekin, Iparraldera joan zen, Beloken egoitza baketsua aurkituz. Han zela, kezka larria piztu zitzaion: herria galzorian, etsaien menpean, odolatan, eta bera geldi, atsedean-bitsetan? Aiko-maiko eta luzamenduetan denbora eman gabe, Bilbora itzuli nahi zuen eta etsi-etsian Eusko Jaurlaritzari eskaini bere zerbitzuak. Baina "Galerna" itsasontzia eta bertan zetozen guztiak etsaiak harrapatu zituen. Donostiako EL DIARIO VASCOk, 1936.eko urriaren 17an, honela zioen: "Arrain lodi bat erori da, txiki batzuren artean". Eroritako guztiak fusilatzeke agindua eman zen, baina ez zen guztiz bete. Jean Pelletier, frantziarra zelako edo, ez zuten hil

eta honek eman zuen LE SOIR egunerokoan Aitzolen berri. Santi Onaindiak honela dakar haren lekukotasuna: "Gabean zear (...) arma-otsak eta pausoak. Geletatik atera ta "Galerna"tik ateratakoak pillatzen. Itxura barik dakust Ariztimuño apaiza, arpegi laru ta puztuaz. Ez dot garbi ikusten. Zaintzaile bik utsita dago, narras daroe gero. Oraintxe fusilatu behar dabe".

Aitzol eta gainerakoak, aske geratzen zirela esanez, Hernanin, hilerriko horma ondoan izan ziren tiroz hilak.

Aitzolez gainera, tiroz hil zituzten apaizen zerrenda luzea dakar Santi Onaindiak bere liburuan: Jose Joakin Arin, Leonardo Guridi, Joseba Markiegi, Jose Inazio Peñagarikano, Jose Adarraga, Zelestino Onaindia, Jorje Iturri-Kastillo, Jose Sagarna, Alejandro Mendikute, Jose Otaño, Martin Lekuona, Gerbasio Albisu...

Espetxean

Duesoko kartzelan sartzean, goitik beherako araketa egin zieten, aldean zuten guztia bertan uztera behartuz. Lau zaintzaile omen zituzten begi-zorrotz. Han doaz airean dominak, erlojuak, eraztunak, aiztoak, artaziak, diruak, jantziak, aldagarriak, oinetakoak... zer ez, gero? Berak ez zuela gauza berezirik, diosku. Bi liburu eskuarteetan: bata Sabino Aranaren "De su alma y de su pluma" eta bestea "Kristo-ren Antz-bidea, Zornotzako Aita Pio karmeldarrak idatzia.

- Eta hauek zer?- galde egin zion zaintzaileak.
- Hauek otoitz-liburuak- erantzun Aita Santik.

Besterik ez omen zion esan. Apaiz egin zenean etxekoek emandako erloju bat ere aldean omen zuen, baina araketa hasi orduko zapata barruan, orpopean ezkutaturik zuen eta etsaien atzaparrak haraino ez omen ziren heldu...

Epaiketak etorri ziren gero. Apaiz hauei egozten zizkieten erruak berdintsuak izan ohi ziren: Espainia euren aberritzat ez onartzea; Espainiaren etsaiei, gudariei, laguntzea; hauek, Espainiaren kontrako altxamendurako, gogoberotzea; euskaraz idaztea... Aita Santiri hiru galdera egin omen zizkion horretarako izendaturik zegoenak: 1.a, zein daukazu zuk zeure aberritzat, Euzkadi ala Espainia? 2.a, frentean ez al zenuen gure aldera pasatzeko aukerarik izan? 3.a, zuk *Karmengo Argia* aldizkarian idazten zenuen...

Lehenengoari, asmo txarrez egindako galdera maltzurra zela erantzun zion. Bigarrenari, baietz, aukera ugari izan zituela beste aldera pasatzeko, baina berak gudarien ondoan zuela bere egitekoa, haiei erlijio-zerbitzuak eskaintzen, horretarako izan baitzen izendatua. Hirugarrenari, baietz, ikasle zela idazten zuela, aldizkariaren zuzendaria lan eske joan ohi zitzaiolako. Gaiztakeria guzti horien ondorioz, 30 urteko kartzela... Beste hainbat kartzelatik aske gelditu ziren, baina eurak baino bizimodu latzagoa izan zutela diosku, lan astun nekagarriak egitera behartu baitzituzten.

Hiru urtetan zehar kartzelaz kartzela erabili zituzten: Dueso-tik Langraritz-era, hemendik Dueñas-era eta azkenez Carmona-ra. Gorriak ikusi zituzten. Hala ere, Aita Santiri, komentuko bakardadean bizi izaten eta gelan bakar-bakarrik lan egiten ohiturik, ez zitzaion hain gogor egin. Gainera, elkarren euskarri gertatu zirela, diosku, anaiak bezala konpondurik.

Horrela, denbora luze joango zela uste izanik, ikasteari, irakurtzeari eta idazteari eman zieten. Aita Santik hizkuntzak ikasten zituen, batez ere frantses, ingeles eta aleman. Hizkuntza hau ikasten taldean aritzen ziren, Besteiro jauna irakasle zela. Liburuak irakurri eta hainbat lan burutu zituen, batez ere euskara lantzeari eta olerkiak idazteari gogotsu ekinez.

Behin kartzelan zela, apezpikua etorri zitzaion bisitatzera. Ez dakit zein kartzelatan, ezta zein apezpiku zen ere, honen berri eman zidanak ez baitzidan horrelako xehetasunik agertu. Apezpikuak Espainiaren aldeko goratarre sutsua egin zien, kontizu, espetxeko apaiz eta erlijiosoi. Haren hitzetan, Espainia guztien aberri handia zen eta Euskal Herria beraren menpeko lurralde txiki bat; labur esateko:

"España una, grande y libre"... Eta aurre-aurrean zen Santiri galdetu omen zion:

- Zuk, gose izan eta aukeratzeko bi ogi, bata handia-handia eta bestea txiki-txikia aurrean jarritz gero, zein hartuko zenuke: txikia ala handia?

- Nik, neuri dagokidana! -erantzun zion Santik hitzetik hortzera, galderaren asmo zitalaz jabeturik...

Bien bitartean zer gertatzen ote zen karmeldarren artean? Guztitarikoak aurkitzen ziren haien artean ere. Batzuk, Euskal Herria, euskara, gure kultura, bertako jendea maite-maite zituztenak. Carmona-ko gartzelan bertan hamar bat karmeldar izango ziren garai hartan; horrez gainera, baziren lan nekagarrietan aritu behar izan zutenak, Ameriketara edo beste toki batzuetara ihes egin beharrean izan ziren fraide abertzale jator-jatorrak ere. Beraz, zorionez, asko ziren gutarrak. Baina ez gutxiago beste aldekoak, hau da, Euskal Herriaren etsaiak. Aita Santik, Santoña-ko espetxean, Dueso-n, sartu berri zela, Karmeldarren Probintzialari idatzi zion eta erantzuna berehala heldu zitzaion Santander-tik. Hark idazten zionez, ongi merezia zuen kartzela, karmeldar soinekoa zikindu baitzuen. "Eta iru urtez bera garbitzen alegindu nintzan giltzapeko loi, otz, gose ta askatasunik eza pazientzi aunditan eroanaz".

Honela dio, hitzez hitz, haren gutunak:

"JHS. P. Ch. II Año triunfal. Santander, 9-XII-37. Mi estimado y apreciable en Cristo: Ya es hora de que llegara a tener alguna noticia de aquel P. Santiago, a quien yo creía tan formal y seriecito y ahora nos ha salido, según dicen, un poco de cuidado. Lo del **hijo pródigo** no está mal traído; pues, mejor hubiera sido que hubiese imitado al buen hijo, quedándose en casa y no metiéndose en aventuras. Así le ha lucido; y nos encontramos ahora con las manos atadas, para echarle mi salvavidas. Es una pena que se haya producido esa... desorientación tan fatal para la vida religiosa y que tanto daño ha causado al prestigio de nuestro santo hábito. No hay más que un camino: penitencia, oración y reparación, si se quiere conseguir el perdón. Le bendice y abraza, su afmo. en Jesús. P. Sergio".

Gutun honek ez du inolako azalpenik behar... Garai arriskutsu haietan gartzelan eta premia larritan zeuden erlijiosoen alde zerbait egin zezakeelakoan izendatu omen zuten Probintzial, gradu handitako militar baten koinatua baitzen; baina, gizagaixoak, leku onetan zeuden...!

1940.eko uztailean eman zioten Aita Santiri askatasuna, baina Euskal Herriko komentuetara etortzerik ez zuen eta Kantabriako Hoz de Anero-ko auzunean den Rigada-ra bidali zuten. Etxe hau oso berezia da; eremutar bizitza egiteko lekua. Eskuarki ez dute hitzik

egiten. Bai, noizean behin badituzte jaiak, eta orduan aritzen dira solasean elkarrekin, baina egun arruntetan ez. Hauetan isilik, otoitzean eta gogoetak egiten, gelako bakardadean eman ohi dute eguna; gainera, gauerdian ere jaiki ohi dira maitinak erreztatza. Aita Santirekin ziren komentu hartan, Carmona-ko kartzelatik irtenda, Aita Errapel Urionaguena Bolibarko semea eta Lino Akesolo ere. "Ondo lixibatu barik ete gengoan ondiño?" -dio berak irri maltzurrez...

Geroxeago, 1942.ean, Gasteizera bidali zuten eta ustekabea, Portugal-go Viana do Castelo-ra joateko gauzak prestatzeko agintzen dio Probintzialak. Kargu horretan une horretan ez zegoen goian aipatutako hura, beste bat baizik. Aita Santik, baina, bazekien ongi, kartzelan egondakoak katea laburrez eta hurbil eduki nahi zituela Espainiako gobernuak. Eta hala, maltzurkeria pitinez, Gobernu Zibilean galde egin zuen nagusiaren agindu hori bete beharrekoa zen ala ez. Ezetz erantzun zioten gogorki eta orduan Logroñora bidali zuen nagusiak...

Logroñon sei urtez bizi izan zen. Pozik bera eta poz-pozik errioxarrak ere, Santi oso langilea eta lagunartekoa baita. Hiztun ona eta pertsona atsegina. Hemendik Hoz de Anero-ra joan zen, espexetik irten berri bizi izan zen eremu--etxe horretara; baina oraingoan bertako nagusi; ez, espexekoa gutxi bailitzan, ongi lixibatu beharra zuen fraide "hesigaitz badaezpadako" gisa. Hurrengo, Larreako nagusi egin zuten. Gero Eibarko nagusiaren ordezkari izan zen hiru urteko beste tarte bat dago. Harrezkeroko guztian Larrean bizi izan da Gasteizko gaixoetxean zendu den arte. Zoriontsu, lan eta lan, erle langileak bezala, euskararen lore-niniketan xurgatzen duenaz ezti gozoa egiten. Bihotza eta burua eder-jario oparoan. Euskara zaharra era guztietako osagai aberatsez, jantzi apainez hornitzen.

Idazlanak

Santi Onaindiaren idazlanei begira jartzea, udazkenean, eguraldi argiz, hego-haize epelaren gozotan, pagadi edo harizti bati so egitea bezalatsu da. Neguko lotara orduko, era guztietako kolorez -berde argi, arrosa, horixka..., burua erakusten duen basoaren ikuskizun sorgina! Bertan barneratu ahala, ordea, oihan itsuan zaudela ohartzen zara. Belarkiak, iratzeak, txilarrak, kuku-fracak, zuhaixkak, zuhaitzak, landaredi sarria.

Amorotoar honen idazlanen oihanean sartu eta zehatz-mehatz arakatu zituen, berak ohi bezala, Julen Urkiza adiskideak, baita Patxi Uribarrenek ere JAKIN - 53.ean (1989 uztaila-abuztua). Horregatik, hemen ez dut egingo haren idazlanen aipamen zehatzik. Haren lanen ikuspegi orokorra eman nahi nuke batetik eta ahozko literaturari eta bertso eta olerkiei dagokiena bestetik.

Haren lanen artean, olerkiak, idazlan laburrak eta liburuak ditugu. Prosaz egindako idazlan laburretan, honako gai hauek jorratzen ditu batez ere: **erlijio-gaiak, euskal gaiak eta gai orokorrak**. Liburuetan ere oso zerrenda luzea du. Hauek honela sailka genitzake: bereberek, bildumak, itzulpenak eta berak argitaratutako beste zenbait idazleren lanak. Dena dela, *MILLA EUSKAL-OLERKI EDER* bilduma bada ere, hauxe da Santi Onaindiaren obra osoaren gailurra. Aipa dezadan Patxi Uribarrenek honetaz dioena:

"Hau dugu, zalantzarik gabe, euskararen historian arrakastarik handienetarikoa jaso izan duen liburua. Gerraondoko gau ilun itogarrien ondoren, egunsenti itxaropentsu gisa agertua. Euskara, gazteleraren 'dialekto' eta hizkuntza basati hutsa zela belarrietan, behin eta berriro entzun ondoren, euskal munduan benetako askaldia sortu zuen liburu mardula. Euskaldunok ere

munduan bagarela aditzera emateko, mendi-gailurrean entzundako irrintzia edo! (...) Gaur egun ere, ezinbesteko erreferentzia gertatzen da euskal olerkigintzaren edozein ikerlan egiteko orduan".

Joan Mari Lekuonak: "Zabalkunde eta irakaskuntz mailan hor dugu bere MILLA EUSKAL-OLERKI EDER (1954), funtsezko idaztiturria gertatu dena gerrondoko gure literatur giroan".

Klasikoen itzulpenak eta EUSKAL LITERATURA arnasa luzeko lanak dituzu. Hala ere, haiek edonoren ahosabaiak dastatzekoak ez dira. Hauek, berriz, badituzte beste zenbait ere lehian; esaterako, Mitxelenarena, Villasanterena, Auñamendiko liburuki handiak...

Santi Onaindiaren olerkigintzaz, Joan Mari Lekuonak, *OLERKI GUZTIEN BILDUMA* liburuaren sarreran dakartzan hitzak tartekatu nahi nituzke hemen:

"Olerki mugimentu baten euskarri eta eragile izan dugu Aita Santi. OLERTI aldizkariaren sortzaile eta zuzendaria izan da, ordu zailetan bere bizkar hartzen duelarik euskal olerkiak plazaratzeko zeregina. Eta esan dezagun, aldizkariak nortasun poetiko jakina ematen diola euskal olerkigintzaren zerbitzari, biztaile eta defendatzaile izan dugunari. Aldizkariak behartu du poesiaz gogoetak egitera, zenbakien osogarri eta aberasgarri diren poemak sortzera edota itzultzera, eta, belaunaldi berriei beren lekua ukatu gabe, gerraurreko olerkarien babesle gertatzera, joera berriagoen aurrean lehenagokoaren testigantza eginez".

Joan Mari Lekuona kexu da, Santi Onaindia, olerkiaren zabaltzaile eta eragiletzat aitortua bai, baina olerkari gisa merezi lukeen baino askoz gutxiago goraiatua eta aztertua izan delako. Haren belaunaldiko beste askoren antzera, tamalez, ahaztua izan dela dio: "Denok dakigu poema asko eta asko idatzi dituela (...). Denok dakigu bi olerki liburu badituela, mardulak eta arnas haundikoak".

"Bere olerkigintzari buruz proiekturik eta poetikarik zuzenean agertu ez badu ere, bi dozena artikulua inguru ditu ederrari eta olerkiari eskainiak. Beraz, estetikaren aldetik azaltzen dizkigun kezkek, gauza jakina da, hor azpian, zeharka bederenik, poetika pertsonalaren hari nagusiak adierazten dizkigutela".

Geroxeago, *NERE BASERRIA* eta *GOIZNABAR* olerki-liburuaren izaeraz dihardu: "NERE BASERRIA liburuaren osotasun baten barruan garaturik dago, planu bati atxekia, poema nagusia eta arnas haundikoa gertatuz. Ez hala *GOIZNABAR*: olerki bildumaren eite haundiagoa du, urterik urte sailak osatzen direlarik".

"Azkenik, ezin dira ikuspegi berberetik epaitu liburuotako poemak. *GOIZNABAR* jo daiteke Lizardi eta Lauaxetaren harikoa, zehaztasunak zehaztasun. Baina *NERE BASERRIA*, poema nagusien harikoa dugu, Orixeren *EUSKALDUNAK* poemaren proportzioan. Badu kidesunetik Mitxelenaren *ARANTZAZU EUSKAL POEMA* (1949) liburuarekin, eta gutxiago ezagutzen diren beste poemekin. Ez dugu ahaztu behar, arnas haundiko poemagintza hau indarrean zegoela gerrondoko olerkarien artean, eta Onaindiak ere bide hori erabili duela".

Joan Mari Lekuonak euskal olerkiari lotu-loturik ikusten du Aita Santi Onaindiaren nortasuna. Haren olerki guztien eremuan antologia bat egin behar litzatekeela ere badio eta horretarako autorea bera litzatekeela inor baino egokiago: "(...) orduan ikusiko litzateke olerkari

ikasi eta saiatu honen ekarririk aipagarriena. Orduan garbiago agertuko litzateke geuk hemen nolarebait irudikatu duguna: estetika bat, estilo bat, testigantza liriko bat. Eta uste dugu, orain arte izan duen baino aitopen mamintsuago bat jasoko lukeela orduan".

Ahozko literatura eta bertsolaritza

Sail honetan bete-betean sartzekoak dira, jakina! *Gure Bertsolariak* eta *Enbeita Oleskaria* liburuak. *Milla Euskal-Olerki Eder* liburuan ere olerki-lanen ondoan bertso-lanak datoz. Eta *Olerki* aldizkarian ere gauza bera egin ohi du. Santi Onaindiak bertsoak, bertso onak, sekula ere ez ditu baztertzen. Olerkien ondoan, haiei ere lekutxo bat egiteko joera agertu izan du beti. Ahozko literaturarekin zerikusia duten bi liburu ezin aipatu gabe utzi: *Jolasketa* eta *Laminak*. Irakurlearen gozagarri diren liburu interesgarriak. Bata mardula eta bestea txikia, baina biak zein baino zein atseginagoak.

Hegazkada txikiak eginez, gazte-gaztetarik hasi zen bertsoak idazten. Aita Angel azkoitiarra izan zuen irakasle eta eragile. "Gogoan dot eta ez jat aztuko, zortziko txiki bat zan, bederatzi aapaldikoa nik lenengoz ikusi egian eroan neutsona. Eretxi oneko agertu jatan, eta arnas-emoille, barne--zauskada ederra emon eustana". Angelo Jauregi aramaiotarra ere aipatzen du, hasierako laguntzaile eta argiemaile haiek eskerronez gogoratzen baititu: "Nik bertso-lanean ari nazanean sarri dakart oroimenera Aita jakintsu bi onein erakutsia".

Larrean *Karmel* aldizkariaren zuzendari zela, jendea euskaltzaletuz zihoala, dio, gazteak batez ere. Askok jo ohi zuten harengana bertso bila, esaterako, andereñoek eta eskoletako neskato-mutikoek. Ezin ezer gabe utzi eta bere bilduma bikainetik egokiena zeritzona hautatu, ukitutxoak edo behar ziren egokitzeak egin eta zertxobait beti eskaintzen zien eta haiek pozik unean uneko gogo eta premiei erantzuteko. Baina gero, hainbesteko olerki eta bertso-bildumak egin ondoren, hoberik eskaintzea ere bazuela eman zion senak, eta bi liburuxka xume argitaratu zituen *Karmel* aldizkariaren ardurapean: *Bertso berri eta Kanta zahar*.

Milla Euskal-Olerki Eder izan zen ondorengo lan askoren enbor nagusi. Horrela, esaterako, *Gure Bertsolariak* liburua ere haren orpotik erretako altxumea da. Behin, egilearekin hizketan nintzela, hauxe esan zidan: Ordurako nik *Milla Euskal-Olerki Eder* eginda neukan, eta gai ugari eta aukerakoa izanik, bertsolaritzaz zerbait egin nenkeala emon eustan senak eta lanari ekinik, apurka-apurka, konturatu orduko amaitu neban". Aita Santik hiruzpalau lerrotan ematen digu obra horren guna:

"Euskaldunen bertsolaritza doai gotorra dozu, gure aozko literaturaren ezaugarri nabarmenena, ez bakarrik azken urteotara arte eskola aundi bako erriaren poesi-kutsuz jarioka daukagulako, baita erri-biotzaren eragin samurrak eta ikutu gozo atseginenak bertsoz iraultzen trebe dalako be. Or gure bertsolaritza egi-egiazkoa".

Lau zatitan eratua dago liburua: lehen zatian, munduko hainbat aldetan izan diren bertsolariak aipatzen dizkigu; bigarrenean, euskal bertsolaritza jorratzen du; hirugarrenean, bertso-motak; laugarrenean, gure bertsolariak (historia pixka bat). Lehen zatikoak, antzina zaharrean, denboraren tolestura ilunetan erdi galdurik dagoelako, jakin-min handiagoa sortu ohi du. Honelako atalak ditu: bertso-esaleak, bertso-egileak, bertsolarien ibilerak, bertsolariak literaturan (Egipto, Txina, Japonia, India); judutarren artean, Biblian; Grezian: aedoak eta rapsodak; keltarren artean, bardoak; germaniarren artean, eskaldak; Frantziako elezaharren

kantariak; Probentzako trobadoreak; euskal kanta zaharrak; erromantzeak, baladak, maiteleloak, irri-kantak, ardo-kantak, jainkozko kantak, pastoralak...

Bere liburuaren nondik norakoa hitz gutxitan azaldu ondoren, betiko umorea agertzen digu Aita Santik:

"Auxe nire liburu onen guna. Ez dozu esango garrantzi bakoia danik. Erriak eta jakitunak txaloka artu eben berau, batzuentzat (bizkaieraz egoalako edo) ain gogoko ezpazan be. Ezta errez, izan be, mundu guztiari atsegin emotea".

Azken aipamen laburra Urretxindorrari buruzko lanaz egin nahi nuke. Bi argitarapen ezagutzen ditugu Muxikako bertsolari handiaz: bata, Zarauzko Itxaropenaren "Kuliska Sorta"n, 1966.ean, argitaratua *Enbeita Oleskaria* izenburuaz; bestea, berriz, Buenos Aires-ko "Ekin" argitaletxeak 1971.ean argitaratua, *Enbeita'tar Kepa, Gure Urretxindorra* izenburuaz.

Ea bilduko zituen haren bertso idatziak esanez etorri omen zitzaizkion behin Santi Onaindiari. Nahiko zabaldurik zeuden *Euzkadin* eta garai hartako aldizkarietan. Asko idatzi zuen Enbeitak. Biltze-lanari ekiteko haren etxera joan zen. Bera hila zen ordurako, baina haren etxeok erraztasun eta laguntza guztiak eman zizkieten. Horrela, laster bukatu zuen lana. "Oleskaria" esaten dio honi. Nik horren zergatiaz galde eginik, honela erantzun zidan:

"Oles egitea deitzea da, atean kask-kask jotea. Bertsolari batzuk ere oles egiten dakie. Nori egiten deutse oles? Entzuteko prest egon leitekezan euskaldun guztiei, baina batez ere herriari. Herriari kask-kask eginik, haren barrua, bai bihotza eta bai haren izate guztia dardaraz jartzen dauana, hori da oleskaria niretzat. Bertsolaria zan bera izan, baina gerra aurretik, hemen Bizkaian batez ere, mitinen bat zanean, batzarren bat zanean, Enbeitari deitzen eutsien; eta ha ez zan ibiltzen hau eta bestea esaten; herriagana joian zuzen; irudi polit batzuk erabilten zituan handik eta hemendik hartuta eta herriaren bihotza dardaraka ipintera joian. Abertzaletasuna zabaltzen ibili ohi zan. Beste batzuk ere ibiliko ziran, baina Enbeita zan beti deitua toki guztietara. Horregaitik ipini neban nik, liburu horretan, oleskari eta gaur ere horretara dabiltzanei oleskari deitzen deutset".

"Enbeitaren bertsoak goiko argiaz eta bihotzeko suaz eginak dira", esan zidan geroxeago.

Azken oharra

Pozik egin dut txango hau Santi Onaindiaren bizitzan barrena, haren *OROIT-TXINPARTAK* liburua gidari dudala. Atxuriartetik Larreara. Gero hainbat komentutan zehar igaro ondoren, Euskal Herriko mendietan balak hurbiletik txistu egin arren, izutu gabe, gudarien zerbitzari zintzo, haien artean kristau-mezua aldarrikatzen, haien bizitza pozten, aholku onak ematen... Geroago, garaileak ezarritako lege latzari itzuri ezinik, gartzela tristean gorriak ikusiz, Dueso-n, Langraitzen, Dueñas-en eta Carmona-n zehar. Carmona-ko ziega ilun hartatik askatasuna lortutakoan, Euskal Herrira itzultzerik ez, eta Hoz de Anero-ko eremu-bizitzan lixibatu behar izan zituen Espainiaren aurkako "dongakeria" handiak. Hainbat atzera-aurrera eta gorabehera, beti ere diktadore zaharraren makilapean, Larreako bere txoko maitera itzuli arte.

Zehar-meharka, bizitza luze eta oparo batek dituen hara-hona eta itzulinguru artean. Haren poz eta nahigabeak pixka bat neure eginik, ahaztu ez zaizkidanak, handi-handika hemen kontatu dizkizut, irakurle.

Baina haren idazlanei begira-begira luzaro izan naiz eta, gain-gainetxotik ateratako argazki xume bat behinik behin eskaintzen dizudalakoan nago. Hala ere, beste batzuk aurretik esana izan arren, bi gauzatxo esan gabe ezin dut etsi: batetik dibulgatzaile handia dugula; han-hor-hemen ikusi eta ikasiak bere lumaren bidez euskal munduan zabaltzen ahalegindu dena; eta bestetik, urterik zailenetan, *Karmel* eta *Olerti* aldizkarien zuzendari eta eusle izan dela.

Luis Baraiazarra Txertudi (*Karmel*)